

**884. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA**

Xedea

Asfaltatze kanpaina 2017

Aurrekariak

Bakarra: Urtero bezala, herriko kaleen egoera mantentzeko asfaltatze kanpaina burutu behar da.

Argudioak

Lehenengoa: Asfaltatze obrak bideratzeko beharrezko pleguak prestatu dira.

Bigarrena: Hauek dira kontratuaren ezaugarriak:

- Kontratu mota: Obra kontratua, prozedura negoziatua
- Licitazioaren prezioa: 94.036,07 € BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 19.747,58 eurokoa da. (Guztira 113.783,64€)

Hirugarrena: Kontratua bideratzeko kreditu atxikipena dago eta dagokion fiskalizazioa egin da.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: 2017. urterako asfaltatze kanpainarako pleguak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Bermeon, 2017ko ekainaren 21ean

NIRE AURREAN
BEHIN-BEHINEKO
IDAZKARIA

